



**Arartekoaren 2023R-1634-22 Ebazpena, 2023ko apirilaren 26koa.** Honen bidez, Energiaren Euskal Erakundeari gomendatu zaio ezeztatu dezala 2021eko Ibilgailuen Renove Planaren baitan ibilgailu bat erosteko laguntza-eskaera baten ukapena.

### Aurrekariak

1.- Pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) 2021eko Ibilgailuen Renove Plana (PAVEA) programaren baitan eskaturiko laguntza bat ukatu zitzaiolako.

Zehazki, kexagileak adierazi zuenez, 2021eko uztailaren 12an, Renove –ibilgailu efizienteak eta alternatiboak– inbertsioetarako laguntzen-programarako eskaera bat aurkeztu zuen, PAVEA xxxx zenbakiarekin.

Kexagileak bere kexa-idazkian azaldu zuenez, EEEK laguntza-eskaera ukatu zuen erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 15eko ebazpen bidez, uste baitzuen eskatzaileak ez zituela egunean bere zerga-betebeharrak.

Ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenaren ostean, kexagilea harremanetan jarri zen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin, ordaintzeke zegoen zorrik zuen jakiteko. Foru Ogasunak jakinarazi zion ez zuela zorrik ordaintzeke betearazpen-bidean. 2020ko PFEZaren bigarren zatia bakarrik zuen ordaintzeke eta kopuru hori, zerga hori arautzen duen araudiaren arabera, borondatezko epean ordaindu behar zen, 2021eko azaroan.

Horren haritik, 2021eko urriaren 4an, berraztertzeke errekurtsua jarri zuen laguntza ukatzeko ebazpenaren aurka, eta azaldu zuen bere zerga-betebeharrak egunean zituela.

2022ko urtarrilaren 21ean, EEEK berraztertzeke errekurtsua ukatzea ebatzi zuen, uste baitzuen 2021eko urriaren 26ko idazkiaren bidez eskatu zitzaion dokumentazioa (zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria) ez zela epearen barruan aurkeztu.

Kexagileak Arartekora jo zuen adierazteko ez zegoela ados laguntza ukatu izanarekin, izan ere, laguntza-eskaera egin zuenean, egunean zituen bere zerga-betebeharrak. Horrela, zalantzan jarri zuen ukapena, izan ere, Bizkaiko Foru Ogasunak elkarreragingarritasun-zerbitzuaren bidez bidalitako informazioan aipatzen



zen PFEZaren ordainketa zatikatua zegoela ordaintzeke. Ordainketa hori inola ere ez litzateke joko zerga-izaerako zortzat.

2.- Kexa izapidetzeko onartu ondoren, 2022ko abuztuaren 5ean eta 2022ko irailaren 18an, Arartekoak informazioa eskatu zion EEEri, kasu honetan laguntza izapidetzeko jarraituriko prozedurari buruz.

3.- Eskareri erantzuteko, 2022ko urriaren 21ean, EEEK eskaturiko informazioa bidali zuen Arartekora.

- Erantzun horretan EEEK adierazi zuen Ibilgailuen Renove Programaren deialdiko oinarrietan laguntza eskuratzeko baldintza gisa ezartzen zela egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Ofizios egiaztatze aldera baldintza hori betetzen zela, EEE Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodora (NISAE) atxiki zen. Horrek aukera ematen zion euskal foru-ogasunetan zuzenean egiaztatzeko interesdunak egunean zituen bere zerga-betebeharrak.

- Eskatera honen espedientean, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, EEEK egiaztatu zuen eskatzaileak egunean zituela bere zerga-betebeharrak, eta, 2021eko uztailaren 12an, ezezko erantzun bat jaso zuen; honela zioen, hitzez hitz: *"Okerra. XXXXX IFZk ez ditu betetzen zerga-betebeharrak. zerga-betebeharrak/ zerga-betebeharren ziozko ez-betetzea"*.

- 2021eko irailaren 15ean, EEEK laguntza-eskara ukatzea erabaki zuen, uste baitzuen eskatzaileak ez zituela egunean bere zerga-betebeharrak.

- 2021eko urriaren 4an, kexagileak berraztertzeke errekurtsua jarri zuen eta bertan adierazi zuen, ordea, egunean zituela bere zerga-betebeharrak. Kexagileak azaldu zuenez, bidalitako zerga-informazioan 2020ko ekitaldiko PFEZagatik zor zuen zenbatekoaren ordainketa zatikatua aipatzen zen, zeina ordaintzeko borondatezko epean baitzegoen. Hori egiaztatzeko, Bizkaiko Foru Ogasunaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen, 2021eko irailaren 23koa, zeinaren bidez egiaztatzen baitzen, data horretan, ez zuela zorrik Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

- 2021eko urriaren 26an, EEEK eskatu zion aurkeztu zezala Bizkaiko Foru Ogasunaren ziurtagiri bat, zeinaren bidez egiaztatzen baitzen eskaera egin zuen egunari zegozkion *"zerga-betebeharrak"* egunean zituela, izan ere, aurkezturiko



ziurtagirian aipatzen zen eskaera egin eta gero izan behar zuela *“egunean ordainketa”*.

- 2021eko urriaren 28an, kexagileak Bizkaiko Foru Ogasunaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez egiaztatu baitzen dagozkion PFEZaren aitortpenak aurkeztu zituela eta data horretan ez zuela zorrik egin Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

- 2022ko urtarrilaren 21ean, EEEK errekurtsioa gaitzetsi zuen, uste baitzuen kexagileak zorrik ez zuela egiaztatzeko aurkezturiko ziurtagiriek ez zutelako egiaztatzen zerga-betebeharrak egunean zituela foru-ogasunak NISA Eren bidez ezezko erantzuna eman zuen egunean; beraz, ezezko erantzun hori erabat baliozkoa zen.

- 2022ko martxoaren 21ean, kexagileak gaitzespena berrikusteko eskaera bat aurkeztu zuen EEEEn, izan ere, Ogasunaren ezezko erantzuna borondatezko epean zegoen zor baten ondorioz eman zela. Kasu horretan, Bizkaiko Foru Ogasunaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen, 2022ko otsailaren 28koa, zeinaren bidez honako hau argitzen baitzen: eskatzailea *“2021eko irailaren 2an, egunean zegoen zerga-aitortpenen aurkezpenari dagokionez, eta bere izenean ez zegoen zerga-zorrik betearazpen-aldian”*.

EEEk Arartekoari bidalitako erantzunean ez da aipatzen laguntzaren ezespena berrikusteko eskaerari emandako erantzuna.

Kexa hori ikusita eta horren planteamendua eta EEEK emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak bidezkoztat jo du honako gogoeta hauek egitea:

### Gogoetak

1. - Erreklamazioaren muinak zalantzan jartzen zuen EEEri 2021eko Ibilgailuen Renove Plana programaren baitan eskaturiko laguntza bat ukatu izana, izan ere, kexagilearen ustez, oinarriak betez, eskaera egin zuen datan egunean zituen zerga-betebeharrak.

Eztabaidak Bizkaiko Foru Ogasunak elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez EEEri emandako informazioa zuen oinarri. Kexagileak adierazi zuen lortutako informazioa ez zela zehatza, 2020ko PFEZari dagokionez ordaintzeke zegoen kopuruari baitzegokion, ordainketa borondatez zatikatzegatik, eta horrek ez zuen esan nahi zerga-betebeharrak bete ez zituenik.



2. Kontu horri dagokionez, laguntzen deialdiaren oinarriak edozein eskatzaile eta Administrazioa gidatzen dituzten arau lotesleak dira. Modu horretan, administrazioak zorrotz aplikatu behar du oinarrietan xedatutakoa, izan ere, oinarrietan ezarritako baldintzak ez betetzea nahikoa da dirulaguntza ez eskuratzeko.

Beraz, izaera arautuak berekin dakar, oinarrietan eskatzen diren betekizunak behar bezala egiaztatu ondoren eta aurrekontu-baldintzen barruan, administrazioak laguntza-eskaera baietsi behar duela, eta ez dela bidezkoa gerora deialdian jasotzen ez diren betekizunak sartzea.

Kasu honetan, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak 2021eko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez ibilgailu eraginkor eta alternatiboetan inbertitzeko 2021eko laguntza-programarako onarturiko deialdiaren oinarriak aplikatu behar dira.

Oinarri horien bigarren puntuan zehazten denez, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituztenek ezin izango dituzte deialdiaren xede diren dirulaguntzak eskuratu.

3. Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiriaren betekizunei dagokienez, Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onesten duen uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren 26. artikuluan zenbait baldintza ezartzen dira. Alde batetik, zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion autolikidazioak aurkeztu dituela egiaztatzen denean; eta beste aldetik, ziurtatzea Estatuko, autonomia-erkidegoko edo lurraldeko zerga-administrazioarekin ez duela *“inolako zerga zor ez zehapenik betearazte aldian. Salbuespena: geroratuko, zatikatutako edo betearazpena etendako zorrak eta zehapenak.”*

Era berean, irizpide hori jasotzen du Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 2. artikuluan jasotzen da. Agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da.



4. Betekizun hori egiaztatzeko prozedurari dagokionez, oinarrien 8. atalean zehazten da EEEK berak egiaztatu behar dituela automatikoki zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Arartekoak 2022R-292-22 Ebazpenean adierazi bezala (EEERI zuzendua antzeko egoera batean), aurreikuspenak horiek izanik, oinarrietan jasotzen da interesdunek eskubidea dutela administrazio publikoen esku dauden dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko.

Eskubide hori, administrazio-prozedura guztietan zuzenean aplikatu beharrekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 eta 53.d) artikuluetan xedatutakoan jasotzen da; horien arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jarduleak dagoeneko badituen agiriak edo beste administrazio batek egin dituen agiriak berriro ez aurkezteko. Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 64.3.i) artikuluan honako eskubide hau aitortzen da: *“Administrazio publikoaren izapideak eta prozedurak sinpleak izateko eskubidea eta prozedurei aplikatu beharreko arauetan exijitzen ez diren dokumentuak edo dagoeneko Administrazio publikoaren eskuetan daudenak ez aurkezteko eskubidea”*.

39/2015 Legearen 28.2 artikuluan jasotako prozedura-eskubidearen arabera, administrazioak du *“dokumentu horiek kontsultatzeko edo biltzeko”* erantzukizuna, baldin eta interesduna horren aurka ez badago.

Hori eskuratzeko prozedurari buruz, 28.2. artikuluan honako hau ezartzen da berariaz: *“Administrazio publikoek elektronikoki eskuratu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez”*.

Horrela, artikulua horrek ezartzen du administrazio publikoek nahitaez kontsultatu edo bildu *“beharko”* dutela dokumentazio hori hainbat tresnaren bidez, hala nola sare korporatiboen erabileraren bidez, datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez.

5. Ildo horretan, dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea ez da agortzen eskaera egiten den unean; laguntzak eskatzeko espedientearen izapidetze osoan zehar eskatu ahalko litzateke. Kasu horretan, administrazio jarduleak dokumentu osagarriak eskatu beharko lituzke, beste administrazio publiko batzuen esku



dauden betekizunak behar bezala egiaztatzen direla bermatzeko, Bizkaiko Foru Ogasunaren kasuan bezala.

NISAEren bidez lortu ahal izan den informazioak ez du betebeharrak hori baldintzatzen; izan ere, EEEK jasota dauden eta posible diren bide guztiak erabili behar ditu beste administrazio batzuetatik dagoen informazio guztia lortzeko.

Horren haritik, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 61.2 artikuluan honako arau hauek jasotzen dira:

*"a) Si el órgano administrativo encargado de la tramitación del procedimiento, puede acceder electrónicamente a los datos, documentos o certificados necesarios mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, los incorporará al procedimiento administrativo correspondiente.*

*Quedará constancia en los ficheros del órgano, organismo público o entidad de derecho público cedente del acceso a los datos o documentos efectuado por el órgano u organismo cesionario.*

*b) Excepcionalmente, en caso de que no se pueda realizar el acceso electrónico a los datos mediante la consulta a que se refiere la letra anterior, se podrá solicitar por otros medios habilitados al efecto y se conservará la documentación acreditativa de la circunstancia que imposibilitó dicho acceso electrónico, incorporándola al expediente".*

Auzitegi Gorenaren maiatzaren 30eko 2187/2022 Epaiak honela dio: *"la razón de ser de esta previsión reglamentaria que, como vemos, está directamente relacionada con lo dispuesto en el artículo 28, apartados 2 y 3, de la Ley 39/2015 y opera como garantía de su cumplimiento. Sencillamente el precepto impugnado del Real Decreto 203/2021 conduce a que quede constancia en el expediente de si la imposibilidad de acceso electrónico a los documentos se debe a una mala práctica administrativa o a un incumplimiento del administrado".*

Eskubide horren legezko erregulazioak ez du inola ere aurreikusi datuen elkarreragingarritasuna behar bezala diseinatu ez denez —hala nola ezezko erantzun gisa PFEZaren ordainketa geroratu sartzeari kasu— herritarrak bere gain hartu behar dituenik lortutako datuen mugen ondorio kaltegarriak.



Horri dagokionez, komeni da mahai gainean jartzea EEEK aurreko erreklamazio batean (MOVES-2021) Arartekoari emandako erantzuna; izan ere, erreklamazioan azaldutakoaren antzeko kasu batean, elkarreragingarritasun-sistemaren bidez emandako lehen ezezko erantzun baten aurrean, EEEK ofizioz eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunari eskuzko ziurtagiri bat eman zezala, non egiaztatuko baitzen kexagileak, eskaeraren datan, egunean zituela bere zerga-betebeharrak.

6. Kasu horretan, kontuan hartu behar da kexagileak justifikatu duela elkarreragingarritasun-sistemaren bidez lortutako informazioa ez zela zehatza, ez baitzuen zerga-betebeharrak betetzeke. Jasotako erantzunean 2020ko PFEZaren ordainketa zatikatzea baino ez zuen jasotzen, eta horrek ez du esan nahi zerga hori arautzen duen araudia betetzen ez denik.

Horren froga zen 2022ko otsailaren 28an Bizkaiko Foru Ogasunak aldeko ziurtagiri bat eman ziola, zeinaren bidez argitzen baitzen 2021eko irailaren 2an kexagilea egunean zegoela zerga-aitorpenen aurkezpenari dagokionez, eta bere izenean ez zegoela zerga-zorrik betearazpen-aldian.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Energiaren Euskal Erakundeari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### Gomendioa

Atzera bota dezala PAVEA xxxxx espedientearen laguntza-eskaera ukatu izana, eta aintzat har dezala kexagilearen eskaera; izan ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua araberak, EEEK ofizioz eskatu behar zion Bizkaiko Foru Ogasunari zerga-betebeharrak egunean zituela egiaztatzen zuen ziurtagiria.